

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****SPRI**

1. Barnekintzaile 2024.....	2
2. BDIH Konexio 2024.....	3
3. BEINT nazioartekotzeko bekak 2024.....	4
4. SOCAK (security operations center) eta ziber arloko ziurtapenak 2024	5
5. Gaitasun digital profesionalak 2024.....	6
6. Euskadiko enpresen konektagarritasunerako 2024.....	7
7. Enpresentzako zibersegurtasuna 2024	8
8. Ekintzaile 2024.....	9
9. Ekintzaile +	10
10. Elkartu 2024	11
11. Fast track innobideak 2024	12
12. Nazioarteko gauzatu 2024	13
13. Global Training 2024.....	14
14. Hazinnova 2024	15
15. Industria digitala 2024	16
16. Adimen artifiziala eta datuaren estrategia	17
17. Kloud 2024	18
18. Lortu 2024	19
19. Pilotu 2024	20
20. Renove smart industry 2024	21
21. Erronka 2030.....	22
22. Sakondu 2024	23
23. Smart Industry 2024.....	24
24. Zabaldu 2024	25



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Barnekintzaile 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 14koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onesten baitira 2024rako «Barne Ekintzaile» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401570e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da berrikuntza irekiko eta industria barne-ekintzailetzako prozesuen eta hari lotutako teknologia eta/edo berrikuntza-oinarriko zerbitzuen sistematizazioa babestea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Euskal enpresen jarduera berriak bideragarri egiten lagundu da, euskal enpresen jarduera ekintzailea bultzatzeko oso garrantzitsutzat jotzen dena, enpresen lehiakortasunerako neurri gisa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektuak	65	40
Onartutako proiektuak	60	36
Onartutako dirulaguntza (€)	800.000	800.000



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BDIH Konexio 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 6koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez agintzen baita, 2024. urterako, «Basque Digital Innovation Hub (BDIH) – Konexio» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402406e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

BDIH Konexioren helburua zubi-plan bat pilotatzea da, euskal industriari esperimentazio- eta testatze-azpiegitura erabiltzeko sarbidea, konexioa eta laguntza teknikoa emateko. Basque Digital Innovation Hub (BDIH) da azpiegitura hori, eta Europako zenbait Digital Innovation Hubs (DIHs) ere bai. Helburu hori BDIHko edo aukeratutako nazioarteko DIHko eragileek emandako laguntza tekniko baten bidez gauzatuko da, ekintza-plan bat egiteko edo kontzeptu-proba bat egiteko, nodoek eskaintzen dituzten teknologia digital eta jasagarriak (robotika malgua eta kolaboratiboa, fabrikazio gehigarria, material aurreratuak, zibersegurtasuna, makina adimendunak eta konektatuak, sare elektriko digitalak eta gailu medikoak eta osasun digitala, adimen artifiziala) xurgatzeko gaitasuna handitzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

BDIH Konexiok 160 eskaera jaso ditu 2024an, iaz baino % 22 gehiago, eta horietatik 124 onartu dira. Programari esleitutako kreditua agortu da. Programaren eskaria gero eta handiagoa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	140	160
Onartutako eskabideen kopurua	115	124



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BEINT nazioartekotzeko bekak 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 1ekoa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira 2024ko «Beint Nazioartekotze Bekak» laguntza-programa arautzen duten oinarriak, eta beketarako deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401384e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarri hauen xedea da unibertsitateko tituludun gazteei nazioartekotzearen arloko prestakuntza ematea, euskal enpresek eta beste erakunde batzuek etorkizunean profesionalen oinarri bat izan dezaten, ekonomia irekiaren erronkei eraginkortasunez erantzun ahal izateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

3.690.000 euroko bekak ematen dira. Programaren eraginaren azterketa ex ante egiten da, eta, ondoren, emandako beken jarraipena egiten da, generoagatiko diskriminaziorik edo alborapenik ez dagoela monitorizatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunen kopurua / Número beneficiarias y beneficiarios	100	99
Genero-berdintasunaren % / % de igualdad de género	50%	63,40%
Programa amaitzean laneratzearen % / % de inserción laboral a la finalización del programa	80%	82,00%

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

SOCAK (security operations center) eta ziber arloko ziurtapenak 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko irailaren 23koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «SOCak (Security Operations Center) eta Ziber arloko ziurtapenak» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea, argitaratzea eta deialdia egitea agintzen duena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan Europar Batasuneko NextGenerationEU funtsek finantzatuta.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404812e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zibersegurtasuneko zerbitzuak bi eremu espezifiktan eman daitezten bultzatzea:

- SOC zerbitzuak (Security Operations Center)
- Ziber-ziurtagiriak (kalteberatasunak aztertzeko eta identifikatzeko zerbitzuak, jardunbide egokiak hartzea, produktu digitalak, elektronikoak eta softwarekoak ziurtatzea, bai eta enpresa-ziurtagiriak ere).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

54 proiektu aurkeztu ziren 2024an, ebaluatu gabe, eta, beraz, onartu gabe. Zibererasoen hazkunde esponentzialak ezinbesteko egiten du euskal enpresa txiki eta ertainei segurtasuna indartzen laguntzea, hirugarrenek kudeatutako segurtasuna kontratatuz, eta zibersegurtasunaren arloko zuzentarauak, estandarrak eta ziurtagiriak hartuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	175	54
Onartutako eskabideen kopurua	150	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gaitasun digital profesionalak 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 21ekoa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «Gaitasun Digital Profesionalak» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401665e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da IKANOS "Gaitasun Digital Profesionala" sistema EAEko enpresetan ezartzeko proiektuei laguntzea, enpresaren lehiakortasuna eta pertsonen garapen profesionala hobetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

321 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 303 onartu ziren, 1.500.000 euroko aurrekontua agortu arte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	230	321
Onartutako eskabideen kopurua	220	303



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko enpresen konektagarritasunerako 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko abuztuaren 6koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024. urterako «Euskadiko enpresen konektagarritasunerako» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea, argitaratzea eta deialdia egitea agintzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404082e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da banda zabal ultralasterreko sareak zabaltzea horrelako zerbitzurik ez duten Euskadiko enpresei, operadoreen telekomunikazio-azpiegiturarik ez dagoelako horiek kokatuta dauden poligono edo eremu geografikoetan. Deialdi berri horrek telekomunikazio-operadoreak bezeroaren instalazioetaraino sarea zabaltzeko kostuak estaltzeko egotz ditzakeen alta-kostu handiak enpresa erabiltzaileei finantzatzea planteatzen du. Adierazlea: Aurkeztutako eskaeren kopurua / Onetsitako eskaeren kopurua.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

116 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 92 onartu ziren. Programaren emaitza gisa, konektibitatea ematea lortu da, eta, aldi berean, EAEko enpresa batzuen telekomunikazio-azpiegiturak hobetzea, digitalizazioa lortzeko aukera emanez, beren enpresa-jardueran produktu eta irtenbide teknologiko berriak sartuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	12	116
Onartutako eskabideen kopurua	10	92



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresentzako zibersegurtasuna 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 15ekoa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendaria, 2024. urterako «Enpresa Zibersegurtasuna» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea, argitaratzea eta deialdia egitea agintzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402065e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da Euskal enpresetan zibersegurtasuna bultzatzea, bereziki IT/OT (Information Technology/Operational Technology) inguruneetarako zibererasoen aukako babes-sistemen konbergentziari eta integrazioari heltzen dioten proiektuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

781 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 522 onartu ziren. Zibererasoen hazkunde esponentzialak ezinbesteko egiten du euskal enpresei babes-neurriak eta -tresnak hartzen laguntzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	350	781
Onartutako eskabideen kopurua	330	522



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintzaile 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 14koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «Ekintzaile» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401569e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da oinarri teknologikoko eta/edo berritzaileko industria-ekintzailetza eta hari lotutako zerbitzuak bultzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurkeztutako nahiz onartutako eskaeretan aintzat hartutako aurreikuspenak nabarmen gaitzen dira, eta emakiden aurrekontu-partida gehitu egiten da, aurrekontu-gehikuntza onartu ondoren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektuak	85	124
Onartutako proiektuak	80	122
Onartutako dirulaguntza(€)	2.300.000	2.157.710

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintzaile +

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 15ekoa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «Ekintzaile +» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402064e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarri hauen xedea da enpresa txikiei laguntzea garapen-itxaropen handiagoak dituzten proiektuetan, inpaktu handiko proiektuetan edo aurrerapen frogagarriak dituzten eten teknologikoetan, Ekintzaile programaren jarraipen gisa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Potentzia handiko start-upen hazkundea bizkortzeko ahalegina egin da; 21 eskaera jaso dira, 10 izan dira onuradunak eta aurrekontua agortu egin da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektuak	15	21
Onartutako proiektuak	10	10
Onartutako dirulaguntza (€)	1.000.000	1.000.000



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkartu 2024

2.- Araua

SPRI - Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpena, 2024ko uztailaren 18koa, "ELKARTU" 2024 laguntza programaren oinarri arautzaileak onartzea, argitaratzea eta deialdia egitea ahalbidetzen duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2403880e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da lankidetzan diharduten enpresen nazioartekotzea sustatzea, besteak beste, sektoreko elkarteak, esportazio-partzuergoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko salmenta-taldeak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdirako esleitutako kreditu guztia — 500.000 euro — agortzen da.

Onuradunak enpresak dira, eta diskriminaziorik ezaren, ingurumenaren eta abarren arloan indarrean dagoen legeria betetzen dela zaintzen da. Gainera, jasangarritasun-irizpideak sustatzen dira, eta laguntzak onartutako aurrekontuaren % 80ra irits daitezke proiektu-burua Mundu Ituna-Global Compact alderdiko kidea bada.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua / Número de proyectos apoyados	15	14
Lagundutako elkarten kopurua / Número de Asociaciones apoyadas	9	6
Lagundutako enpresa-lankidetzako taldeak / Grupos de cooperación empresarial apoyados	6	8

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Fast track innobideak 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 12koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez 2024ko «Fast Track Innobideak» laguntzen programa arautzen duten oinarriak onartzen eta argitaratzen diren eta deialdia egiten den.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401568e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da Produktuaren eta/edo prozesuaren eta berrikuntza bultzatzeko funtsezkoak diren ekintza osagarrien berrikuntza sustatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira, 257 enpresa txiki eta ertainek aurkeztutako 282 proposamen jaso dira, eta aurrekontua, guztira, 70,6 milioi eurokoa izan da. Azkenik, 137 berrikuntza-proiektu eta berrikuntza laguntzeko 13 ekintza osagarri giltzarri finantzatu dira. Horrek guztiak esan nahi du 23 milioi euro mobilizatu direla berrikuntza-jardueretarako 136 industria-enpresa txiki eta ertainetan eta industriari lotutako zerbitzuetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1. lerroa.- Berrikuntza-proiektuak aurkeztu diren proiektuen kopurua	100	267
1. lerroan onartutako proiektuen kop. – berrikuntza-proiektuak	60	137
1. lerroan onartutako dirulaguntza – berrikuntza-proiektuak	7.190.000 €	8.000.000 €
2. ildo- Funtsezko ekintza osagarriak aurkeztu diren proiektuen kopurua	60	15
2. ildo- Funtsezko ekintza osagarriak onartutako proiektuen kopurua	40	13
2. lerroa – Funtsezko ekintza osagarriak onartutako dirulaguntza	460.000 €	170.821 €



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Nazioarteko gauzatu 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko irailaren 24koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako nazioartekotze zuzendariarena, Nazioarteko Gauzatu 2024 laguntza programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404634e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Atzerrian dauden euskal enpresen ezarpen produktiboak eta produkzio-prozesuari lotutako zerbitzu teknikoak ezartzea, zabaltzea eta berritzea bultzatzea, baldin eta enpresen lehiakortasuna handitzen eta haien bideragarritasuna ziurtatzen laguntzen badute, bai eta nazioartekotze-prozesuetan garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen badute ere. Era berean, programak atzerriko enpresak erosten laguntzen du. Laguntzak norgehiagoka bidez eta publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioen arabera emandako aurrerakin itzulgarriak dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdia 5.000.000 eurokoa zen, eta horietatik 4.064.422 euro eman dira. 7 ezarpen-proiektu lagundu dira, eta eragindako guztizko inbertsioa 24.039.747 eurokoa izan da. Ingurumenaren, diskriminaziorik ezaren eta abarren arloko legeria betetzen dela zaintzen da. Gainera, aurkeztutako proiektuak baloratzeko irizpide gisa, eta % 20ko pisuarekin, enpresa eskatzailearen konpromiso soziala eta iraunkortasuna jasotzen ditu programak. Praktikan, irizpide hori enpresa eskatzaileek ingurumenaren iraunkortasunari, genero-berdintasunari, euskararen sustapenari eta erantzukizun sozial korporatiboari buruz emandako ziurtagirien eta/edo planen azterketan gauzatzen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako enpresen kopurua	8	7
Eragindako inbertsioa -milioi euro-	25	24

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Global Training 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 12koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, «Global Training» 2024 laguntza programaren oinarri arautzaileak onartzea, argitaratzea eta deialdia egitea ahalbidetzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401999e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da EAEko gazteen nazioz gairik mugikortasuna sustatzea, unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako tituludun gazteen profil akademiko eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak atzerrian egiteko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren aurrekontua agortu da. Onuradunek (erakunde laguntzaileek) diskriminaziorik ezari, ingurumenari eta abarri buruzko egungo legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, emandako beken jarraipena egiten da, generoagatiko diskriminaziorik edo alborapenik ez dagoela monitorizatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunen kopurua	500	433
Formalizatutako lankidetzak-erakundearen kopurua	7	7
Genero-berdintasunaren %	50%	60,70%

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hazinnova 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 19koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024ko «Hazinnova» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia egitea agintzen duena.
--

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401663e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da gauzazko laguntzak ematea, euskal enpresaren berrikuntza ez-teknologikoa bultzatzeko, produktuetan eta negozio-prozesuetan berrikuntza txikiak sortzen dituzten mikroproiektuak eginez, eragin handikoak eta konpainietan epe laburreko emaitzetan gauzatzen direnak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024an, 525 proiektu eskatu dituzte 384 enpresak. Deialdian 365 enpresaren 499 proiektu lagundu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
HAZINNOVA Lagundutako proiektuen kopurua	500	499

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Industria digitala 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 23koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «Industria Digitala» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten eta argitaratzen dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401162e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (EIKT) barne-prozesuetan eta bezeroekiko, hornitzaileekiko eta administrazioekiko harreman-prozesuetan txertatzen laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

949 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 797 onartu ziren. Beharrezkotzat jotzen da enpresen kudeaketa- eta ekoizpen-prozesuetan teknologiak txertatzen jarraitzea, digitalizazioan aurrera egiteko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	550	940
Onartutako eskabideen kopurua	500	797
Onartutako dirulaguntza	6.100.000	8.092.876



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Adimen artifiziala eta datuaren estrategia

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko abuztuaren 9koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «Adimen Artifizial Aplikatua eta Datuaren Estrategia» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasuneko NextGenerationEU funtsek finantzatuta.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404139e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da Euskal enpresetan Adimen Artifizialeko soluzio komertzialen ezarpena bultzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Euskal enpresetan adimen artifizialeko irtenbide komertzialen ezarpena bultzatzea. Ekintza: Euskadin jarduera-zentro bat duten enpresentzako laguntzak, adimen artifizialeko merkataritza-aplikazioak eta Datuaren Estrategiarekin lotutako proiektuak sar ditzaten.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	125	207
Onartutako eskabideen kopurua	120	136
Onartutako dirulaguntza	5.000.000	4.119.374

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kloud 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko abuztuaren 6koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, «Kloud 2024» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2404042e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da enpresei laguntzea beren gela teknikoetako eta datuen prozesamendurako gune pribatuetako ekipoak CLOUDen eskaintzen diren kanpoko instalazioetara migratzen, zibersegurtasuna, efizientzia eta zerbitzua hobetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 152 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 96 onartu ziren. Egungo enpresa-panoraman etengabe gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, gero eta erakunde gehiagok uste dute egokia dela cloud azpiegitura erabiltzea, enpresaren beharretara egokitzeko.
--

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	40	152
Onartutako eskabideen kopurua	35	96



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lortu 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 26koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «Lortu» laguntza-programa arautzen duten oinarriak onartzekoa eta deialdia iragartzekoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401810e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea da behar duten industria produktu-prozesuari lotutako zerbitzuei kanpoko laguntza profesionala ematea, batera, finantza-osasuneko proiektu bat egin ahal izateko, esparru operatibotik eta finantzariotik enpresaren jarraitutasuna eta etorkizuna zaintzeko egin daitezkeen jarduerak aztertuko dituen. Horri guztiari esker, ekintza-plan bat gauzatu ahal izango da epe labur, ertain eta luzerako finantza-egonkortasuna eta bideragarritasuna lortzeko, enpresaren lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortu programa 4 ediziotan argitaratu da (2021-2024), eta eskaerak eta onartutako proiektuak gero eta gehiago izan dira, aurreikusitako helburuen gainetik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	25	51
Onartutako eskabideen kopurua	20	36

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Pilotu 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko irailaren 10ekoa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen, argitaratzen eta deitzen baita Pilotu 2024 laguntza-programa.
--

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404493e.shtml
--

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da Nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuen diseinua eta garapena sustatzea, eskala txikian egin beharreko egiteko moduak, metodologiak edo proposamen berritzaileak probatzeko balioko dutenak, eta, batzuetan, bolumen handiagoko proiektuetan lortutako esperientziatik abiatuta erreplika daitezkeenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontuaren % 40 inguruko laguntzak eman dira. Onuradunek diskriminaziorik ezari, ingurumenari eta jasangarritasunarekiko konpromisoari buruzko egungo legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, proiektuen balorazioaren barruan, konpromiso soziala eta jasangarritasuna sartzen dira irizpide gisa. Helmugako ingurunearen gaineko eragin positiboa ebaluatzen da (2030 Agenda, giza eskubideen errespetua), bai eta enpresek aurkeztutako ingurumen-jasangarritasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloko ziurtagiriak eta/edo planak ere.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua	6	5

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Renove smart industry 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 7koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «Renove Smart Industry» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402468e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarri hauen xedea da makineria eta/edo ekipamendu aurreratua (Hardware eta Software) eskuratzen laguntzea, 4.0 industria-proiektuak eta energia-efizientziako eta hobekuntza teknologikoetako proiektuak ezartzeko, eta hobekuntza teknologikoak, industria-enpresetan eta industria produktu-prozesuarekin lotutako zerbitzu enpresetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurkeztutako eskabideak bikoiztu egin dira, eta aurrekontuan jasotako 8 milioiak agortu egin dira, hasieran aurreikusitakoa baino milioi 1 gehiago aurkeztu ondoren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektuak	120	272
Onartutako proiektuak	90	180
Onartutako dirulaguntza (€)	8.000.000*	8.000.000



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Erronka 2030

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 3koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024rako «Erronka 2030» laguntza-programen oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402981e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzailtzaren euskal ekosistema bultzatu eta hobetzeko proiektuetarako laguntza arautzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Ekintzailtza-ekosistema indartzeko ekimen berriak bultzatzen ditu, aurkeztutako eta onartutako eskaerak gaindituz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektuak	20	31
Onartutako proiektuak	10	18
Onartutako dirulaguntza (€)	150.000	150.000

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Sakondu 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 8koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baitira Sakondu 2024 laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402533e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oso nazioartekotuta dauden EAEko ETEei laguntzea, % 50 baino gehiago esportatzen baitute, eta beren kokapena hobetu nahi dute beren barneratze ahula duten merkatuetan (% 25 baino gutxiago).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako aurrekontu guztia agortzen da. Onuradunek diskriminaziorik ezaren, ingurumenaren eta jasangarritasunarekiko konpromisoaren arloan indarrean dagoen legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, proiektuak baloratzeko, Konpromiso soziala eta jasangarritasuna irizpidea sartu da. Ondorioz, enpresa eskatzaileek ingurumenaren iraunkortasunari, genero-berdintasunari, euskararen sustapenari eta erantzukizun sozial korporatiboari buruz aurkeztutako ziurtagiriak eta/edo planak ebaluatzen dira, bai eta helmugan duten eragin positiboa ere (2030 Agenda, giza eskubideak errespetatzea).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako enpresen kopurua	90	117
Laguntza jaso duten eta enpresa emergenteak direla egiaztatzen duten enpresen % (start-ups)	10%	9%
EAEko enpleguan eragin positiboa duten lagundutako enpresen %	80%	91%
Gizarte Konpromisoa eta Iraunkortasuna egiaztatzen duten enpresa babestuen %	40%	48%

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Smart Industry 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 21ekoa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez 2024ko «Smart Industry» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzen baitira, eta laguntzen deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401664e.shtml
--

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da garapen esperimentaleko proiektuak babestea, Smart Industry kontzeptuari lotutako teknologiak txertatzeko proiektuei heltzeko, esaterako, Adimen Artifiziala, Zibersegurtasuna, Konputazio Kuantikoa, 5G edo Cloud Computing, besteak beste, eta «hornitzaile teknologikoei» («I+G eragileak», hala nola, adibidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sareko eragileak, Ingeniaritzak/Aholkularitzak edo Telekomunikazioetako Operadoreak) ezarritako Garapen Esperimentaleko fasean daudenak, industria produktu-prozesuari lotutako industria- eta zerbitzu-enpresetara (5G teknologietarako beste jarduera ekonomiko batzuk onartzen dira), frogatze-efektua dutenak eta, beraz, EIKTetako I+G proiektuen emaitzak merkatura transferitzeko aukera ematen dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

30 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 28 onartu ziren, aurreikusitakoa baino zertxobait gutxiago.
--

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	35	30
Onartutako eskabideen kopurua	30	28



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Zabaldu 2024

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 8koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, «Zabaldu 2024» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia egitea agintzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402534e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Fakturazioaren % 50 baino gutxiago esportatzen duten ETEen nazioartekotzea sustatzea, kanpoko merkatuetan duten presentzia handitu ahal izateko.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak ematen dira, nazioarteko sustapeneko gastuak, aholkularitza estrategiko eta operazionalako gastuak eta kanpoko merkatuetara sartzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk arintzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako aurrekontu guztia agortzen da. Onuradunek diskriminaziorik ezaren, ingurumenaren eta jasangarritasunarekiko konpromisoaren arloan indarrean dagoen legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, proiektuak baloratzeko, Konpromiso soziala eta jasangarritasuna irizpidea sartu da. Ondorioz, enpresa eskatzaileek ingurumenaren iraunkortasunari, genero-berdintasunari, euskararen sustapenari eta erantzukizun sozial korporatiboari buruz aurkeztutako ziurtagiriak eta/edo planak ebaluatzen dira, bai eta helmugan duten eragin positiboa ere (2030 Agenda, giza eskubideak errespetatzea).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako enpresen kopurua	200	249
Laguntza jaso duten enpresa emergenteak direla egiaztatzen duten enpresen % (start-ups)	10%	14%
EAEko enpleguan eragin positiboa duten lagundutako enpresen %	80%	94%
Gizarte Konpromisoa eta Iraunkortasuna egiaztatzen duten enpresa babestuen %	20%	30%